



## Herri Arteko Txapelketan Aurrerakoak garaile

**LEITZALDEA** ▶ Areso eta Leitzako pilotariak Berrizekoen aurka bi eta bat irabazi zuten atzo Arrasaten

**ERABAKIORRA** ▶ Gazteek galdu ondoren (22-0), senior mailako garaipenak erabaki zuen finala ▶ 5



## Saninazioak nahiz santioak, «gustura»

**TOLOSALDEA** ▶ Villabonan, Altzon eta Ibarako San Inazio auzoan jaietan murgildurik daude; gaur ere ez dute atsedetik hartuko ▶ 4



Mobilizazioa, atzo. N. URBIZU

**TOLOSALDEA** ▶

## Errepideetan «euskal presoek egoera» salatzen

Etxerategen antolatutako ekimena izan da, «estatuen jarrerari erantzuna emateko» ▶ 5

## GUTUN@K ▶

Alde Zaharra  
sustatzuz?

Tolosako Alde Zaharrean ezinezkoa da larunbat goiz batean sartzea, kanpotik bazatoz, behintzat. Tolosan bertan bizi diren oinezkoentzat agian errazagoa izango da. Baina nik ezin dut kotxea inon aparkatu. Merkataritza bultzatu nahi du Udalak, baina gero ez du soluziorik jartzen. Aparkatzeko lekurik jartzen ez bada jendea gertuen duen merkatalgunera joango da erostera. Bertan denda guztiak bertatik bertara ditu erosleak eta aparkatzeko ez du ordaindu behar. Jende pila bati entzun diot «Tolosan ezin da aparkatu eta Urbilera joaten naiz ni», edota «bi eroketa egiteko OTA ordaindu behar izate...».

Mesedez eskatzen dut pentsa dezatela dirua nola gehiago lortu beharrez, benetako irtenbide bat. Dago-kionari. Euren lana da eta. Herriko merkataritza desageru egingo da bestela...

MAIDER MUGIKA ▶ TOLOSA

## TELEFONOAK ▶

Larrialdiak. ((112))  
Osasuna.

▶ **Alegialdea.** Osasun z.: 653212  
▶ **Anoeta-Alkiza-Hernalde.**

Medikua: 65 23 39

▶ **Asteasu.** Medikua: 692423▶ **Baliarrain.** Medikua: 889003▶ **Berastegi-Elduain.** Medikua: 683361▶ **Bidegoian.** Medikua: 681134▶ **Ibarralde.** Osasun etxea:

672411

▶ **Ikaztegieta.** Medikua: 653329▶ **Irura.** Osasun zentroa: 690720▶ **Leitza.** Osasun z.: 948 510800▶ **Orendain.** Medikua: 655595▶ **Orexa.** Medikua: 682228▶ **Tolosa.**

▶ Anbulatorioa, larriald: 461111

▶ San Esteban: 006800

▶ Gernikako arbola: 006900

▶ Amaroako dispen.: 672637

▶ Asunzion klinika 675799 -

67 53 90 (larrialdiak)

▶ DYA: 672536

▶ Gurutze Gorria: 674888

▶ Villabona. Anbulat.: 006970

▶ Zizurkil. Aiztondo zerb.: 693930

## Garraioak.

▶ Renfe: 902 24 02 02

▶ Donostiako autobusa: 361740

▶ Tolosaldea bus: 650621

▶ Leitzarain autob.: 948 221015

▶ Taxia: 670420

▶ Taxia (Leitza): 608 873016

## Besterik.

▶ Ertzaintza: 538820

▶ Tolosa-Udaltzaingoa: 675858

▶ Tolargi: 650016

▶ Iurramendi egoitza: 670325

▶ Tolosa gasa: 675320

## UZTURRETIK ▶ AMAIA AGIRRE

## Hiru hitz



**K**antu batek hala dio: «hiru hitz bakarrik zekizkin esaten, aintzinako ipuin xarmangarriak... besterik ez zekin hain gaztea zen». Nik ere nahiago nuke askotan entzuten diren albiste eta kontuak jakin baino hiru ipuin eder soilik jakin. Aste honetan hiru ipuin baino hiru hitz iltzatu zaizkit belarrietan eta begietan: epaitu, espektakulua eta dopina.

Murtziako Fernando Ferrin epaileak ama lesbiana bat drogazale, emagalduta eta sekta arriskutsu bateko partaide baten pare jarri du. Epaileak ere legeak hausten hasi badira akabo dena! Baionako alkateak ere hobe luke lepoko zapia ahoan jarriko balu. Nor da bera emakumeok zer nola jantzi behar dugun epaitzeko? Probokazioa bultzatzen omen

dute zenbaitek jatzeko moduagatik eta horregatik omen hainbeste bortxaketa Baionako jaietan. Gisa honetako gizonak Frantziako Tourreko zenbait txirrindulari baino dopatuago daudela dirudi. Aurtegoan ere Frantziako Tourra espektakuloaren aldare izan omen da. Zentzu guztietan dirudenez. Ni ez naiz txirrindularitza jarraitzen duen horietakoa baina herri honetan apolitikoa izan ezin zaitezkeen bezala uztailearen bigarren hamabostaldian ere ezin Tourraren zipristinek busti gabe ibili. NBA saskibaloio ligan ere espektakuloaren alde egin dute. Ikuskizun bat omen da gauza ororen gainetik. Hemendik aurrera ez dituzte dopinaren aurkako frogak egingo. Han ez dute mediku eta epaileen beldurrik, beraz. Batzuetan zigortzeko dirudiena zilegi da, eta beste kasu batzuetan onartua eta zilegi dena zigortu egiten dute. Beste hitz batzuen bila noa, baina badakit zernahi entzun edo irakurtzen dudala ere hauetako hitzen bat beti agertuko dela. Edozein espektakulo epaitzea da gure dopina.

## ESANA ▶

IÑAKI EPELDE  
MARGOLARIA

«Kolore eremu horietan abstrakzioa adierazten duten kaligrafiak sartzan ditut»

Galtzaundi

## ARGAZKI ZAHARRA ▶



## 40. hamarkadan billabonatarrek Santio jaiak ospatzen

**Eredakzioa** ▶ 40. hamarkadan beste era batean bazen ere, santioetan giro paregabea izaten zen. Hona hemen adibide batzuk: 1. 1948ko Santio Egunean dantzariak sueltoan, dantzakoa eta gero. 2. Pedro Mutio eta Praxku Mari Oizartzabal aterki eta txapela jantzi-

ta mozorrotu ziren 1946ko santioetan. 3. 1948an, mutilen parean, sueltoan dantzan billabonatar neskak ilaran ageri dira. Herritarak pozik, alai eta dorore urteko datarik gogkoenak iritsitakoan.

‘AMASA-VILLABONAKO ERRETRATU ZAHARRAK’ LIBURUTIK

TURISMOA ▶

ERREDAKZIOA

**G**uztion ahotan dabilen gaia da urte sasoi honetan: oporraldia. «Nora zoaz?» «A zer enbidia, ni aurtentxean geratuko naiz» «Nonbait gertu joango naiz» «Aspaldi genuen hartuta bidaia»... Horrelakoak entzuten ditugu kaleetan zehar. HITZAKO erredakzioak ere hilabetez pertsianak itxi egingo ditu baina joan aurretik jendeak gehien aukeratzen dituen opor lekuak aztertu nahi izan ditu, irakurleei aukera zabala eskaintzeko.

Atsedenaldea, eguzkia, abentura, hondartza, mendia, urez, oinez, bizikletaz, kotxez,... Hamaika aukera daude eta bidaia agentziara jotzen dutenek eskaera ezberdinak egiten dituzte. Villabonako Bidaide bidaia agentziako Nerea Goikoetxeak azaldu duenez, «bi turista mota gerturatzen dira guregana». Bi bezero mota hauetan «helburua oso desberdina» izaten da.

Lehenengoak, gurasoak dira, «ume txikiak dituztenak». Hauek, lasaitasuna bilatzen dute, eta aldi berean eguzkia ziurtaturik duten lekua eskatzen dute. «Urte osoko estresa utzi nahi dute alde batera». Halaber, umeentzat instalakuntza egokiak izatea garrantzia du, baita ailegatzeko errazak izatea ere. «Mediterraneoko kostalde osoa, Balear Uharteak eta Kanariar Uharteak aukeratzen dituzte, gehienbat». Turista mota honetan aurtengo «bidaia izarra Menorca izan da», aitortu du Goikoetxeak. «Merezitu du, oso leku ederra da».

Bigarren turista mota, berriz, umerik ez duen bikotearena da, «dagoeneko umeak helduak direlako zein bikote gaztea delako; koadrilak ere izaten dira batzutan». Hauen kasuan, eguraldi ona bai, baina garrantzia handiagoa ematen diote ingurua ondo ezagutzeari. Bezero mota hauentzat leku aukeratuena «Afrikako hainbat herrialde, Greziako irlak, Corsika edota Grezia izaten dira».

Prezioa ere erabakiorra izan

# Zer bilatzen duzuzuk oporretan?

Atsedena, eguzkia, abentura, mendia, hondartza...  
Hamaika aukera daude oporraldiaz gozatzeko



Bezeroen artean gehien aukeratzen diren lekuak: goian, Croazia, behean, Menorca. HITZA

ohi da oporretarako leku bat aukeratzera. «Ahal dutenek abuztua ekidin egiten dute; lehen motako bezeroarentzat zailagoa izaten da, umeek orduntxe dutelako jai». Izan ere, beste hilabete batekin alderatuz gero, abuztua oso garesti ateratzen da. «Azaroarekin alderatuz, %60 garestiagoa izan daiteke bidaia». Hala eta guztiz ere, turisten artean abuztua «hilabete izarra» izaten jarraitzen duela dio Goikoetxeak.

Proposamen deigarriak

Nerea Goikoetxeak argi du «hamaika leku zoragarri» daudela munduan bidaiatu ahal izateko. Hala ere, aurtengo udako hainbat proposamen egin ditu oraindik erabakia hartu ez dutenentzat.

Lasaitasun bila doazenen lehen bezero mota horri, Gatako Lurmuturra (Almeria), Algarve (Portugal), Menorca (Balear Uharteak) edota Palmako irla gomendatzen dizkio Goikoe-

TURISTAK

«Bi bezero mota daude: lasaitasun bila doazen gurasoak eta umerik gabe lekuak ezagutu nahi dituztenak»

ABUZTUA

«Hilabete garestiena da; adibidez, azaroko hilarekin alderatuz gero %60 garestiago aterako da bidaia»

txeak. «Lasaitasuna ziurtatuta dago baina ez daude hain usiatuak. Kosta Urdina ere ez da hain ezaguna eta oso polita da». Bigarren turista motari, lekuak ezagutzera doanari alegia, Eslovenia edo Croazia aldera joateko gomendioa luzatu du. «Europa iparraldea, EEBB, Hego Amerika... Leku bakoi-tzak du bere xarma».

Haatik, oporretara kanpora joatea erabakitzen duten guztiek ez dute bidaia agentzietan eskatzen euren bidaia. Leku zehatz batean geldirik egotea gustuko ez dutenek aukeratzen dute, batik bat, bidaiatzeko modu hau. Ibilbide luzeak izaten dira gehienetan, furgonetaz, kotxez edota motorrez egiteko modukoak.

Beste batzuk kirola egiteko aprobeztatzen dute oporraldia. Pirinio aldera joaten dira mendizaleak; Done Jakue bidea ere egiten dute txirindulartza zaleek.

urteurrena ▶

**I. urteurrena**  
**Asier Aranguren Olaizola**  
**Azaztze**  
(2006ko uztailaren 30ean hil zen)

**Zure irribarreak piztutako suak gure barruan darrai**

**Zulozabal Kultur Elkarte**

AZPEITIA, 2007ko uztailaren 29a

urteurrena ▶

**I. urteurrena**  
**Nekane Arizkorreta Baron**  
(2006ko abuztuaren 3an hil zen)

**Maita zaitugulako gurekin zaude gurekin betirako**

Haren animaren aldeko meza DATORREN IGANDEAN, ABUZTUAK 5, 12:00tan Beasaingo Loinazko Martin Deunaren elizan izango da.

**TOLOSAN ETA BEASAINEN,**  
2007ko uztailaren 29an

urteurrena ▶

**III. urteurrena**  
**Iker San Sebastian**  
(2004ko uztailaren 30an hil zen)

Zure irripar gozoa eta zure begien ditzira zure ahotsa, zure keinuak hiru urtez falta dira zure gelako ohe hutsetik zure mahaiko tokira... Askok emanda joan zinen arren hutsune hau gehiegi da! Egun osoa pasatzen degu Iker zuri begira.

**UGARTEN,** 2007ko uztailaren

ASTEARTEAN, UZTAILAK 31 bere harimaren alde meza izango da Ugarteko Erosarioako Amaren elizan 10:00etan.

**HILBERRIAK**  
**URTEURRENAK**  
**ESKERTZAK**

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAN jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

**HITZAK GIPUZKOAN**  
**120.000 IRAKURLE**

ESKELAK  
19:00ak arte hartzen dira  
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info  
Tel.: 943 65 56 95



## JAIK ▶

## NEREA URBIZU

Aitzoko jaiak hasiak dira dagoeneko. Buruhandiek eman zieten hasiera atzo eguerdian, eta segidan herriko dantzariak eta Alurreko dantzariak aritu ziren. Iraunkorrak txarangak ere girotu zuen herria. Gaur, pilota izango da eguerdian, eta arratsaldean, herritarren arteko apustuak. Ondoren, sagardo dastaketa, eta gauean, Trikiotza taldea. Bihar zikiri jatea izango da, eta umeentzako ekintza ugari, baita goizean ere.

Hiru egunetan zehar izango dute zer gozatu Altzon. San Inazio auzoan, Ibarren, hain zuzen, atzo eta gaur izan dute jai. Bertan haurrentzako ur kontuak izan zituzten goizean, eta arratsaldean, besteen artean, sokatira eta dantza bereziak.

Villabonako Santioen baitan, Amasan pilotako finalak jokatu zituzten, eta irabazleak, palan Urdanpilleta-Lazkano izan ziren, 30-12 irabaziz Eusebio-Etxanzen kontra. Eskuz, aldiz, aňogarrentzat izan zen garai-pena 22-16 emaitzarekin. Liza-so-Txapertegik ezin izan zuten kanpotarrekin.

# Saninazioak eta santioak batera, gure hiru txokotan

Villabonan santioekin ez dute nahikorik; San Inazio auzoan bi eguneko zoramena izango dute, eta Altzon, bat gehiago

## Eresargiren saioa gaur

Bestalde, Eresargi abesbatzak kontzertu berezia prestatu du gaurko, Gurea Zinemaren, 22:30ean. Bi zati izango ditu; Eresargik musika latinoamerikarra landuko du eta Zornotzako ahots lodiko abesbatza «gure betiko folklorean oinarrituko da». Zornotzako ibilbidea zabala da eta lortu dituen sariak ere ugariak.

«Normalean gu entzutera etortzen ez direnei animatu nahi genieke», diote Eresargikoek, «ziur gaude gustatuko zaiela».



Buruhandiek Altzoko jaien hasiera etorri zen. N. URBIZU



Villabonan, Gari, Montxo eta Joselontxoren saioa une bat, plazan. N. U.



Die Boss e Izegem belgikar taldearen emanaldiaren une bat. N. URBIZU

## AZOKA ▶

## Udako giroa sumatu da Tolosako Alde Zaharrean

Eskaintza udakoa izan da, eta udazkeneko produktuak hasi dira ikusten dagoeneko

## PABLO ALBERDI

Atzoko azoka eguna guztiz udakoa suertatu zen. Goizeko lehenengo orduetan, la-saitasuna, eta eguna aurrera joan ahala giroa berotu zen. Kanportar eta bisitari asko ere ikusi genuen azokan, eta guztira egun polita bizi izan genuen Tolosan.

Eskaintza aldetik, berriz, guztiz udakoa izan zen; barazki asko, perretxiko zerrenda ia agortua, eta dagoeneko, hasi dira Berdura plazan udazkeneko barazkiekin eta baita apaingarriko erramuekin ere.

## ATZOKO AZOKA ▶

	merk.	gares.
<b>Berdura Plaza</b>		
Gerbera	12,00	-
Hortentsia	12,00	-
Lobelia	4,50	-
Xarbota	4,00	6,00

## Bertako produktuak

Ziza horia	15,00	-
Marrubia	3,00	-
Lekak	3,50	4,50
Porruak	1,00	10,00
Txikoria	1,00	1,25
Irasagarra	3,00	6,00
Ardi gazta	14,00	18,00

## Produktu ekologikoak

Kalabaza	1,60	3,04
Aza	2,50	3,00
Kogoiola	1,00	-
Ahuntz gazta	3,00	-
Txibiriok	2,40	-

### TOLOSALDEKO HITZA.INFO

**Begiradak.** Eskualdeetako hainbat gai zehatzei buruzko informazioa bateraturik aurkituko duzu atal berri honetan: eskualdeetako musika taldeak, etxebizitza berrien ingurukoak, alkate berriek egindako elkarrizketak, eta hainbat gai gehiago ere. Sar zaitze, eta di-da batean eskualdeetan dugunaz modu errazean enteratuko zara.

Janari Denda

Ondo pasa Santiotan!

**Pepi**

Berria, 56 BILLABONA  
Tel. 943 69 16 38

Etxeko Barazki eta Fruituak

Nahikidekio

Santioak ondo pasa!

Tel.: 943 69 64 84  
Faxa: 943 69 33 59  
Larrea auzoa, 8  
20150 BILLABONA

**EIZMENDI**

ARMATEGIA • KIROLDENDA

• Kirol gaiak konpontzeko lantegia  
• Aukera handia eskopeta eta kartutxotan

ONDO PASA JALETAN!

Berria, 19 • Billabona • Tel.: 943 69 26 23 • Faxa: 943 69 30 44

ondo pasa festak!

Erniebea auzoa

Billabona

**Atxitxero**

**AITZOL TABERNA**

• Eguneko menuak  
• Otartekoak • Pintxoak

Etxeondo, Ibehea • Villabona

GIZARTEA ▶



**Errepideetan  
Etixeraten  
erantzuna**

**Erredakzioa** ▶ Etixerat elkarrekin uda honetarako antolatutako ekimenen baitan, atzo eguerdian, N-1 errepidean, eskualdetik igarotzen den zatian, hainbat lagun jarri ziren ikurrinak eta amnistiaren aldeko ikurrak eskuan zituztela. Bestalde, mobilizazioekin jarraituz, abuztuaren 5ean hontzar-tzetara joango dira. Ekimen hauek «estatuak hartzen ari diren neurri errepresiboei erantzuteko modua» dira, Etixeraten esanetan. Honez gain, «une gogor hauetan, milaka euskal herritar errepresaliatu politiko eta senideekin batera» daudela erakutsi nahi izan zuten atzokoarekin. NEREA URBIZU

LEITZA-ARESO ▶ PILOTA

**Herri artekoan, Leitza izan da garaile, Berrizekoei garaituz**

Hiru partidetatik bi irabazi zituzten; senior mailakoena erabakiorra izan zen

**ERREDAKZIOA**

Atzo Arrasaten Leitzako pilotariak Euskal Herriko herrien arteko Txapelketako finala irabazi egin zuten Berrizkoen kontra, nahiz eta gazte mailakoan kristoreen porrota jaso, 22-0 galdu baitzuten.

Senior mailakoan partida izan zen erabakiorra, eta 22-8 irabaztearekin, txapela Leitzara ekarri dute Aurrerakoek.

Ohiko pankartak ikusi ahal izan ziren Arrasateko pilotalekuan, Leitzakoak animatuz. Aurten ere, beraz, txapela Na-

farroan da, iaz Lizarrak irabazi baitzuen. «Hauek ere aurkari gogorrak izan dira», aipatu zuten Andres Aranburu botileroak.

Finalen aritu diren pilotariak Alduntzin-Jaunarena, Goikoetxea-Aranburu eta Olazabal-Iriarte izan dira. Lehen bikoteak 22-16 irabazi zuen; bigarrenak, berriz, 22-0 galdu egin zuten, eta seniorren parti-

da erabakiorrean 22-8 gailendu ziren Leitzaldeko pilotariak.

Ander Aranburu-Jon Jaunarena (Leitza) eta Mikel Loidi-Gotzon Urkijo (Berriz) kadeteek jokatu zuten lehen partida, eta leitzarrak nagusitu ziren: 22-16. Ongi aritu zen Leitzako bikotea, maila ona erakutsiz. Bigarren partida, gazteen mailakoa izan zen. Honetan, Oier Alduntzin-Aitor Goikoetxeak

osatatuko bikoteak ez zuen behar bezala jokatu. Aldiz, Aitor Alberdi eta Eneko Perasanz oso ongi aritu zen, eta 0-22ko emaitzarekin aise irabazi zuten. Alberdik sakez 18 tanto egin zituen, partidari 40 pilotakada besterik ez ziren izan, eta lehiak hiru minutu eta hamasei segundo baino ez zuen iraun. Nagusien mailako partida zen, beraz, erabakigarria. Aurrez

aurre: Mikel Olazabal-Mikel Iriarte eta Mikel Gonzalez-Ibai Zabala pilotariak ziren. Partidaren hasieran 7 eta 1eko partzialarekin eskualdekoak jarri ziren aurretik. Azkenik 22-8 irabazi zuten leitzarrek, eta honen erabaki zen azken emaitza. Beraz, bi eta bat, nafarrak izan dira aurten ere herri arteko txapelketaren garaile, Lizarrakoei erreleboa hartuz.

Egun, Leitzako Aurrera Pilota Elkartek 48 pilotari dauzka. Bertan botilero gisa dihardu, azken lau urteetan Andres Aranburuk. Beraren esanetan, hasiera batean, finalera iristea ere ez bazuten espero, azkenik, txapelarekin etxeratzea lortu dute. Botileroaren hitzetan, «sufrituta eta lanarekin» iritsi ziren finalera.

**iragarki laburrak ▶**

**LANA**

**Zaintzailea.** Emakume euskalduna behar da etxeko lanak egin eta ume bat zaintzeko, goizetan, Ibarren. Deitu 943 67 15 09ra.  
**Zerbitzaria.** Zerbitzaria behar da, lanaldi erdirako edo osorako. Deitu 943 67 09 28ra.

**SALGAI**

**Leihoak eta atea.** Oso egoera onean dauden poliuretanozko leihoak eta egurrezko atea. Telefonoa: 678 63 65 21.

**BRONTXILLO** Harategia • Arraindegia  
943 69 68 23  
Santio, 4  
Villabona  
Santioak ondo pasa!

**OGI-GOXO**  
Okindegi eta Gozotegia  
Kale Nagusia, 26  
Tel.: 943 69 32 94  
Billabona

**GOIATZ MARGOAK OROKORREAN**  
- INDUSTRIALA - FATXADAK -  
- FATXADAK ERABERRITZEKO - HARRIA GARBITZEKO...  
Errota kalea, 6 - 2.ezk • BILLABONA  
Tel.: 943 69 31 01 • faxa: 943 69 31 01 • 609 14 37 13

**JANARIDENDA PILAR**  
Santioak ondo pasa!  
Larrea,9 • Villabona  
Tel.: 675 713637

**BASOKO ALTZARIAK**  
garces altzariak  
1.930ean sortua  
www.muebles-basoko.com

- Dekorazioa
- Barne apaindura
- Proiektuak
- Gremioen koordinazioa

Larrea auzoa,  
Villabona  
Tel.: 943 692 965

HEZKUNTZA ▶

# Nola sortu gizarte zoriontsuagoa?

Emozionalki adimentsua den lurraldea sortzeko helburuz adimen emozionala ari dira lantzen ikastetxeetan; Hirukiden eta Laskorainen prestatu dute materiala

IÑIGO TERRADILLOS

Urrun geratu da, edo hala uste dugu edo espero behintzat, indarkeriaren bidez irakatsi nahi izaten zen hezkuntza. Egun, berriz, atzean geratzen ari da soilik teoriari oinarriturikoa, eta emozioek duten garrantzia ohartzen hasiak dira ikastetxeetan.

Hain zuzen ere, garrantzi horretaz jabetuta, Gipuzkoako Foru Aldundiko Berrikuntzarako eta Jakintzaren Gizarterako Departamentuak «emozionalki adimentsua den gizarte bat lortzeko helburuz» ekimen bat jarri zuen martxan duela bi urte. «Ikastetxe guztiak deitu genituen bilera batera proiektuaren berri emateko, eta erantzuna oso ona izan zen», dio Joseba Amondarainek departamentuko zuzendariak. Adimen emozionala egunerokoan txertatzeko zer nolako prestakuntza behar zuten hezitzaileek aztertu zuten lehendabizi. «izan ere, arlo horretan bazegoela behar bat ikusi ondoren asetzeko modua pentsatu genuen». Irakasleei formazioa



Hirukide ikastetxean dagoen adostokietako batean bi ikasle. HITZA

eman eta gero hau ikasleei helarazteaz gain, adimen emozionalaren inguruko materiala sortzea ere izan du helburu Foru Aldundiak sustariko ekimenak. Kasu honetan, gainera, Tolosak protagonismo berezia du, izan ere, bertako Laskorain Ikastola eta Hirukide eskola aritu dira material hori prestatzen. «Formakuntza jasotzeko asmoz hezitzaile gehien bertatik etorri zirelako aukeratu genituen bi ikastetxe horiek lan hori egiteko».

Foru Aldundiak homologaturiko Sycom enpresako langileak dira hezitzaileak formateaz arduratzen direnak. «Aldundiak epe luzean Gipuzkoa emozionalki adimentsua izango den, elkarbizitzan hobetuko duen eta herritarrek zoriontsuagoak izango diren lurraldea izatea lortu nahi du eta horretarako burutzen diren ekimenak elkarlanean egiten ditugu», azaltzen du Jose Antonio Gonzalezek Sycom-eko zuzendariak. Azken bi urte eta erdian, 2.000 hezitzaile inguru prestatu dituzte, eta dagoeneko ikasleekin ere hasiak dira adimen emozionala lantzen.

Laskorain eta Hirukide ikastetxeek prestatu duten materialari dagokionez, hurrengo ikasturterako Gipuzkoako gai-

KEPA GOIKOETXEA ▶ LASKORAIN IKASTOLAKO BIGARREN HEZKUNTZAKO ZUZENDARIORDEA

## «Norberaren burua eta emozioak ezagutzea da lehenengo pausoa»

Laskorain Ikastolan adimen emozionalaren Bigarren Hezkuntzari dagokion materiala prestatzen aritu dira bakatu berri den ikasturtean. Kepa Goikoetxea (Tolosa, 1968) da Bigarren Hezkuntzako zuzendariordea. Adimen emozionala 4. mailako edo aditu mailako ikastarora egina du.

**2004. urtean ekimenaren berri izan zenutenetik, nola izan da proiektuaren garatzea Laskorainen?**

Foru Aldunditik formakuntza eskaintza bat iritsi zen, eta zuzendaritza taldeko hiru kide joan ginen zuzendaritzako kideei zuzenduriko adimen emozionala formakuntza jasotzera. Hiru mailak jarraian egin genituen, eta gero, irakasleek jaso zuten formakuntza; 20 irakasle 2005ean, eta ondoren, beste guztiak.

**Maila desberdinetan dago banatuta formakuntza.**

Adimen emozionalaren oinarri teorikoak zerikusia du norberaren egoerarekin; ez da erreminta bat ikastea besteekin aplikatu ahal izateko, ez da unitate didaktikoa nola eman behar den ikasleekin jakitea, ez da gramatika ikastarora zure ortografia zuzendu ahal izateko. Adimen emozionalak zerikusia du zure izaerarekin, izaeraren garapenarekin, zure bizi kalitatea hobetzearekin... Ikastaroko lehenengo mailarekin, norberaren barnekoa lantzen da, eta horrek asko lotzen du. Izan ere, guztiz baliagarria da norberaren burua eta emozioak ezagutzea; horiek identifikatu eta jakin behar duzu zeintzuk erabiltzen dituzun, eta ikusi zure eguneroko jardunean zer eragin duten.

**Hori lehenengo mailan, eta besteetan?**

Behin zurea ezagutzen duzunean, erremintak ikasita, nola

hobetu jakiteko gai izan zaitezke eta besteekin daukazun harremana ere nola hobetu jakin dezakezu. Hau bigarren eta hirugarren mailan ikasten da. Irakasleen arteko harremanak pisu handia du ikastetxeetan, kalitatezko hezkuntza bat eman nahi baduzu oso garrantzitsua baita ondo koordinatuta egotea. Irakasleek oso baliagarritzat jo dute adimen emozionala harreman horiek hobetzeko tresna ona delako.

**Egunerokoan zein izan daiteke adibide argi bat?**

Esaterako, demagun, lanera goizetan haserre natorrela, eta ez naizela horretaz konturatu; baina konturatzen banaiz, uler dezaket ikasleekin eta lankideekin ditudan harremanak haserrealdi horrek baldintzatutakoak direla, eta azter dezaket zerk sortu duen nigan haserre egotea. Formakuntza honen gaitzen zaitu zuk zeuk



I. T.

azterketa egin eta horrelakoez konturatzeko.

**Proiektuaren baitan, zein faseetan zaudete une honetan?**

Behin hezitzaileek formazioa jasota, gurasoen txanda izan da ondoren. 200 bat prestatu dira 1. mailan, eta hurrengo urtean 2. mailari ekingo diote. 4 aditu gaude Ikastolan eta gure formakuntza beretsua jaso du-

ten gurasoekin batera prestatuko ditugu gainontzekoak.

**Gurasoak prestatzea ere oso garrantzitsua da.**

Formazioa integrala da. Ikastetxeak eta gurasoek batera joan behar dute ikasleen heziketan, elkarlana izan behar da bien artean.

**Ondorioak nabari al dira dagoeneko?**

Lankideen artean antzeman da, bereziki jarreretan, hainbat jarrera desagertu egin baitira, konturatu egin direlako-edo. Lankideen arteko giroa hobetu egin dela esan daiteke. Askoz gusturago gaude. Ikasleengan ere asko nabari da jarrera aldatetako egon direla. Bizitzako egoera guztietan sentitu, pentsatu eta egin izaten da jokatze modua. Hori ulertarazi behar zaie, eta hasiak dira barneratzen.

**Materialaren osaketa nola joan da?**

Materialaren beharra zegoen, eta batez ere, euskaraz, ez baitzegoen ezer. Lan-talde bat arduratu da horretaz, eta lan handia izan da, baina oso erabilgarria izango da. ◀



nerako ikastetxeek erabilgarri izango dutela espero du Foru Aldundiak. Beraz, guztiek izango dute material propioa 3tik 18 urtera bitarteko neska-mutuei adimen emozionala garatzeko lagundu ahal izateko. «Nolabait esateko, eduki berriak sartu dira hezkuntzan. Honekin lortu nahi dena da ikasleak zentzura ez soilik kontzeptuak (matematikak, historia, geografia...) ikastera joatea, baita ere, bizitzan zehar, alor pertsonalean nahiz lanean, sor dakizkieken erroketi aurre egiteko gai izan daitezen eta, finean, pozik bizi ahal izateko tresna edota baliabideak garatzea», azaltzen du Gonzalezek.

**Gurasoak ere trebatuz**

Hirukiden Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntzari dagokion materiala prestatzen aritu dira, eta Laskorainen, Bigarren Hezkuntzari dagokiona. «Material oso bat prestatu dugu, heziketa emozionalean oinarrituriko sistema jarri nahi baitugu mar txan 3 urteko haurrekin hasiko dena eta urtetik urtera garatuz jarraituko duena. Baina, hori bai, ez dadila izan irakasle edo tutore baten inizatiba bezala sorturikoa, heziketaren baitakoa baizik, gurasoen inplikazioarekin», dio Gonzalezek. Horregatik, irakasleek gain, guraso ugari ere prestatu dituzte. «Azken aldian, gurasoek,

lanpeturik zeudela-eta, heziketa ikastetxearen esku utzia zuten, eta hori akats handia da, arlo askotan hezitzaileek ezin baitute gurasoen lekua bete».

Irakasleekin bezala, Sycom enpresako langileak arduratu dira gurasoentzat ikastaroak antolatzeaz, eta erantzuna, hemen ere, «oso ona izan da; ikastetxeak eta familiak elkar-lanean aritzea lortzen da».

**Ilusioa berreskuratu**

Bultzatzaileen arabera adimen emozionala lantzea aldatkatxiki bat da, «baina askoz ere gehiago» egin beharra dago. «Metodologian asko aldatu behar da, ikaslea baita asko aldatu dena eta egun ez dago besterik gabe irakasleari entzuteko prest; horregatik, ikaslea

ikertzaile txiki batean bihurtu behar dugu». Hala, esaterako, zentro askotan ikasleek libururik gabe lan egiten dute, eta Interneten lortzen dute behar duten materiala. «Oraindik atzean gaude, beraz. Hezitzaileek konturatu behar dute oinarritzko ezagutzen irakaskuntza ez badago emozio batzuei loturik ikaslea aspertu besterik ez dela egiten. Jakintzak esperantza eta kuriositatea bezalako ilusioen bidez helarazi behar ditugu. Ikasleen ilusioa berreskuratu behar dugu, eta horretan hezitzailearen pape- rak berebiziko garrantzia izango du: izan ere, irakaslea ikastetxera ilusiorik gabe joaten bada eskolak ematera, nola eskatuko die ikasleei ilusioz joka dezaten?», azaltzen du Jose Antonio Gonzalezek.



Laskorain Ikastolan, ikasle bat emozioen trenarekin. HITZA

**Lehenengo emaitzak**

Emaitzak nabaritzen hasi diren esateko oraindik goiz bada ere, adimen emozionaleko ikastaroak egin eta gero, hezitzaileak edo irakasleak gusturago joaten direla lanera, eta poztasun handiagoa dutela diote ekimenaren bultzatzaileek. «Hau oso datu garrantzitsua da, izan ere, asko izaten dira irakasleen artean depresioa dela-eta baja hartzen dutenak, eta irakaslea eskolak ematerako orduan gustura eta ilusioz ari bada, hori ikasleei ere kutsatu egiten zaiei. Dena den, 3 edo 5 urte barru hasiko dira aldaketak nabaritzen», dio Joseba Amondarainek. Eta hau dena ongi aztertzeke Aldundiak Euskal Herriko Unibertsitateko ikertzaile talde bat jarriko du lanean epe motzean, erdian eta luzean adimen emozionalak duen eraginaz jabetzeko.

**Gizarte eta enpresa arloan**

Ekimen hau, ordea, ez da ikastetxeetara eta familietara mugatzen. Denera, lau arlo garatu nahi ditu Foru Aldundiak, eta aipaturiko biei enpresa, eta gizarte ekintza gehitu behar zaizkie. Bakoitza bere aldetik ari dira garatzen lau arloak, eta orain arte lan handiena ikastetxeetan eta familietan egin dute. Gizarte arloan, adimen emozionalean prestatu nahi di-



**J. A. GONZALEZ**  
SYCOM ENPRESAKO ZUZENDARIA

«Alor pertsonalean nahiz lanean, erroketi aurre egiteko eta pozik bizitzeko baliabideak garatzea da helburua»

tuzte pertsonekin tratua duten guztiak: aisialdikoak, kale hezitzaileak eta gizarte zerbitzueta-koak, esaterako.

Enpresa arloan ekimenaren berri emateko Nazioarteko to- paketa bat egin zuten. «Enpre- sa gizatiartuagoak sortu nahi ditugu, eta ahal bada, langileak astelehenean lanera gustura joatea lortu behar dugu. Izan ere, gustura ez joateak ahalik eta lan gutxien egitea dakar, eta aldez, lanean zoriontsu ba- zara, frogatuta dago gehiago lortzen dela, lan handiagoa eta hobe egingen dela».

Adimen emozionala gara- tzen hasiko dira aurki, enpre- setan, eta kasu honetan ere es- kulaldeko lantergi bat izango da aitzindaria.

**TXARO ETXEBERRIA** ▶ HIRUKIDE ESKOLAKO ORIENTATZAILEA

«Ikasleen heziketan familia eta ikastetxea lotzea garrantzitsua da»

Hirukide eskolan Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntzari dagokion adimen emozionalaren inguruko materiala aritu dira prestatzen azken hilabeteetan. Txaro Etxeberria (Tolosa, 1962) da bertako orientatzaile, eta ekimenaren inguruko informazioa jaso zutenean, bai berari bai eta irakasleei ere asko gustatu zitzaizela dio.

**2004ean aurkeztu zuen Foru Aldundiak ekimena, eta ondorengo pausoa irakasleak prestatzea izan zen.**

Lehenengo bilerara ni joan nintzen eta ondoren, irakasleentzat ere eginikoan, 6 irakasleekin joan nintzen. Asko gustatu zitzaigun proiektua, eta guztiek eman genuen izena ikastaroak egiteko. Hala, lehenengo, bigarren eta hirugarren mailako formakuntza egin genuen. Hurrengo urtean gainera irakasleek egin zituzten ikastaroak. Laugarren maila-

koa edo adituena, berriz, 10 hezitzailek ari gara egiten.

**Irakasleek gain, gurasoek ere jaso dute prestatzea.**

Bai. Gurasoen artean ere arrakasta handia izan du ekimenak. Hala, 100dik gora familiek egin dute lehenbizikoa, eta askok egin nahi dute bigarren maila. Horrela lortzen dena da seme-alaben hezitzaile ere bihurtzen direla gurasoak adimen emozionalari dagokioenean.

**Ikastaroak jaso eta gero, nola barneratzen da ikasitakoa ikastetxearen egunerokoan?**

Tutoritza adimen emozionala lantzeko programa egin genuen, eta gero, hori tutoritza- tika atera eta curriculumean sor- tzea da helburua.

**Zertarako ballo du adimen emozionala lantzeak?**

Arlo emozionala oso garrantzitsua dela konturatzeko. Le-

hendabizi norberaren emozio- ak ezagutu eta ondo kudeatu behar dira, eta gero beste- nak. Hezitzaileetan, esaterako, ikasleak era positibo batean kutsatzea lortzen da, beraien motibazio maila handiagoa baita. Gurasoak formatuz, bes- talde, ikasleen heziketan fami- lia eta ikastetxea lotzea lortzen da, eta hau garrantzitsua da.

**Prestakuntza jasotzeaz gain, materiala egiten aritu zarete.**

Lan-talde bat dago asko inpli- katu dena, eta gainera Sycom enpresak ere asko lagundu digu. Guk prestatutako mate- riala beste ikastetxeetan bali- agarria izango dela jakitea ere pozgarria da.

**Garaiz izango da oraindik ondo- dorioz hitz egiteko.**

Bai, baina pasadizo ugari dau- de ikasleekin. Ikastetxean Adostokia izeneko txokoa dute ikasleek edozer gertatzean hara joan eta hitz egiteko, eta



I. T.

badirudi hau barneratzen ha- siak direla, aurreko batean ama batek zera esan baitzidan bere alabak esan ziola: «Ama ez egin errietarik txokoa jarri- ko dugu eta haserretzean hara joango gara hitz egitera».

**Adimen emozionalaz gain, beste ekimen batetan sartu- rik ere bazaudete.**

Bai, Urteko Bizikidetzako Plana deiturikoan. Haurrak bizitzara- ko hezi behar ditugu. Hala, bizi- kidetzarekin zerikusia duen

guztia gehiago landu behar ge- nuela konturatu ginen, eta Hi- rukide sortzean talde pedago- gikoa sortu zen, bizikidetzaz lantzeko. Adar asko daude: emozioen hezkuntza, arauen kudeaketa demokratikoa, ika- skuntza kooperatiboa... Emozio- en hezkuntzarekin hasi ginen, eta hor adimen emozionalaren proiektuarekin egin genuen topo; gure nahietara egokitzen zen Foru Aldundiak eskaintzen ziguna. Bestalde, adostokiak sortzen ere hasi ginen; hauek gatazken kudeaketarako gele- tako txokoak dira. Aurten, ber- rriz, oso sarturta gaude Urteko Bizikidetzako Planarekin; Hez- kuntzaren lege berria sartuko da iraillean, eta aurrerantzean ikastetxe guztiek izan beharko dute bizikidetzako plan bat. Hori dela eta, Eusko Jaurlaritzak, aurreratu nahian, EAEko 13 ikastetxe aukeratu zituen Bizi- kidetzako Plan piloto bat proba- tzeko. Gu eta beste 12 ikaste- txeren esperientziekin liburux- ka bat-edo aterako dute besteentzat baliagarria izan dadin. Proiektu honekin ere oso gustura gaude. ◀

**AGENDA ▶**

**DEIALDIAK**

**Aitzo.** Jubilatuen hamaiketakoa. 12:00etan pilota partidak frontoi berrian (Renobales-Galarraga eta Elurbe-Garmendia afizionatuetan). 18:30ean herritarren arteko apustuak. Ondoren, sagardo dastaketa eta Trikitio 23:00etan; gero, aulki jokoa.

**Ibarra.** San Inazio auzoko jaien baitan: Dultzaineroen diana; 10:30ean trikitilarien kalejira; 11:00etan futbol finalak; Jesus Maria Azurmendi eta Unai Otaño aizkolarien erakusketa 12:30ean, trikitixa eta bertsolariak; eta jaiak bukatzeko traka.

**Tolosaldea.** Tolosa, Berastegi, Elduain eta Berrobiko erromesaldia Arantzazura hilaren 31n izango da. Autobuserako eta bazkarirako txartelak, San Frantzisko komentuan.

**Villabona.** Haurren eta gazteen eguna Villabonan: 9etan plater tiraketa; 10:30ean herri krosa; 11etan sokamuturra; 12etan gazte jokuak eta haur jolas parkea; 14etan bazkaria; 16:30ean pote punk; 19:30ean Abiba disko festa; 21:15ean kontzertua; 22:30ean abesbatzak.

**GUARDIAKO FARMAZIAK**

**Gaur**  
 Leizta. Erbiti, O. Lizarraga, 7. 112.  
 Tolosa. Etxebeite, J.M. Gernikako arbola, 3. 943 651040.

**Bihar**  
 Lekunberri. Mendia, B. Aralar, 25. 112.  
 Tolosa. Bronte, C. Korreo kalea, 10. 943 676013.

**Etzi**  
 Lekunberri. Mendia, B. Aralar, 25. 112.  
 Ibarra. Iturrioz, I. Euskal Herria, 3. 943 670915

▶ HITZA ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



**URTE ASKOAN**  
 Leire Lezeta. Gaur 8 urte. Muxu asko ebekoen partetik, gure parrandera.



**Azken paletada hotsak entzun dira**

**TOLOSA ▶** Merezitako urdaiazpikoa eraman zuten herenegun Garces eta Gastearrenak. Artola eta Garikano bederlatzi aldiz Tolosako CFren paleta txapelketako garaile izan zirenak 23an utzi zituzten. Desafioaz gain, 39. Txapelketako finala ere jokatu zen ostiralean. Hemen, gauzak parekatuta joan ziren, baina azkenean, Lontxo eta Nazabalek osatutako bikotea nagusitu zen. Hauek, 28an utzi zituzten Otermin eta Goitia. Baina jar-

dunaldiko lehen partida beste bat izan zen. Izan ere, hirugarren eta laugarren postua oraindik erabakitzeke zegoen. Hemen, Artola eta Txepe, Ur-danpilleta eta Zabaletaren kontra. Lehendabiziko bikoteak irabazi zuen.

Tolosa CFren 39. Paleta txapelketa amaitu bada ere, bihar berriro izango da zer ikusirik Berazubiko frontoian. Hain zuzen ere, txapelaren oroigarria jokatuko baita 18:30etik aurrera. Lehendabiziko partida Artola-Garces, Zabaleta-Garikano bikoteen artekoa izango da. Jarraian, Maizeta Lloverosek osatutako bikotea, Aldazabal eta Trinketeren auska lehiatuko da. Azkenik, Renobales-Urola, eta Goiburu-Lontxoren artekoa ikusi ahal izango da. Bikote hauez gain, Otermin eta Goitiak osatutako bikotea era final erdian izango da, hauek zuzenean igaro baitira. N. URBIZU

**AGURRAK ▶**



**ZORIONAK!**  
 Aurten ere hemendik Enpa. Zorionak!  
 Hire aldeko topa apaizan potroak.



**ZORIONAK!**  
 Egun batean joan ziran/ utzirik guraso eta senide/ zure zain gaude gau eta egun/ noiz etorriko zeran berriro/ Euskal Herria. Zure urtebetetze egunean zorionak eta muxu handi bana.



**ZORIONAK**  
 Ainara eta Aitor (Amezqueta-Asteasu). Hoi den hoi leatza, pekaera!! Ondo pasa eta bihar arte.



**ZORIONAK!**  
 Oskar Zelarain. Urtero bezala hemen gaude denak zu zorientzeko. Muxu handi bat Alegiko lagunen partetik!